

AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/06/14	Ordua eta iraupena: 18:30an, ordu eta erdi	Lekua: Udalbatza aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	---	---

“**Zer da mugikortasun iraunkorra?** Mugikortasun iraunkorra leku batetik bestera joateko, bidaiatzeko modu bat da baina kaleko eta bideko bizilagun guztiak errespetatzen dituen modu bat. Mugikortasun errespetagarri horri ekiteko ezinbestekoa da modu iraunkorrek lehentasuna izatea modu kutsakorren eta kostu energetikoa handiko moduen gainetik. Nahitaezkoa da hiriak planifikatzea, oinezkoen eta bizikletarien mugimenduak lehenbizi eta garraio publikoko bidaiarien mugimenduak, bigarren, erosoak eta seguruak izan daitezen”
Ole Thorson



Gaurko tailerreaan...

Nortzuk hartu dugu parte?

20 pertsona bilduko gara guztira. Talde anitza eta desberdina gara eta, saioz saio, Legazpiko Agenda 21a itxuratzen duten gaiak eta proiektuak izan ditugu hizpide eta hausnar-gai.

Gu gara:

Izena	Izena	Izena
▪ Mila Noguera	▪ Montse Vallejo (APA Olazabal)	▪ Mariano Guerreiro
▪ Juncal Fernández	▪ Vicente Garmendia	▪ Manuel Fernández (Buztintegi)
▪ Josune Makaia (UGGASA)	▪ Arantxa Segurola (Haztegi)	▪ Maite Lázaro
▪ Lurdes Etxaniz (Eiluz)	▪ Agustina Romaratezabala (Eiluz)	▪ José Ignacio Gil (Ur Kontsortzioa)
▪ Begoña Lekue (Iratzarri)	▪ María Amor Martínez (Iratzarri)	▪ Inma Hernandez (A21eko teknikaria)
▪ Garbiñe Egaña (Ilinti)	▪ Juan Carlos Alzelai	▪ Juan Ramón Larrañaga (Alkatea)
▪ Zorione Aierbe (Prometea)	▪ Iciar Montejo (Prometea)	

Guztiei, eskerrik asko!! eskaini dituzuen ideiegatik eta, batik bat, Legazpiko Agenda 21eko proiektuak, urratsez urrats, zehazten eta itxuratzen lagundu duzuelako.

Lanerako, ¿zein gai ditugu?

Sarrera motz baten ondoren, Legazpin garrantzi handia duen gaia landu dugu: **mugikortasuna**. Zehatz-mehatz ondokoa egin dugu:

- Legazpiko kaleetan eta hirigunean mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko azkeneko urtean **burutu diren udal ekintzak** ezagutu ditugu; halaber, egiteke dauden ekintzak jakin ditugu. Guzti horrek taldeak orain dela urtebete egin zuen lanari erantzun dio.
- Gainera, portaera osasungarriagoa eta iraunkorragoa bultzatzeko Legazpin **gara daitezkeen proposamen edo ekintza hezigarriak** aztertu ditugu. (mugikortasunari dagokionez beti ere).

Eguna: 2007/06/14	Ordua eta iraupena: 18:30an, ordu eta erdi	Lekua: Udalbatza aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	---	---

Eta tailerrean lortutako emaitzak? Segidan!

● Hasteko, gogora ditzagun egun batzuk

Tailerrarekin hasteko, puntu batzuk ekarri dira gogora; Inmak, 2007ko Aste Berdea ospatuko dugula eta burutuko diren bi ekintzen berri eman digu. Hauek dira:

- **Ibailde** edo Ibaian dagoen biodibertsitatearen azterketa. Datorren larunbatean, ekainak 16, izango da goizeko 10:00etan. Ekintza hori gidatzeko eta dinamizatzeko CEIDE-Ingurugelako Joxan Auzmendiren laguntza izango dugu. Momentuz, 8 pertsonak azaldu dute bertan parte hartzeko interesa.
- Modu berean, datorren ostegunean, ekainak 21, edateko uraren Brinkolako araztegia eta Zumarragan dagoen ur zikinen araztegia bisitatuko ditugu. Horretarako, Udalak autobusa antolatu du (dagoeneko 30 pertsona baino gehiago daude!); lan horretan Ur Kontsortzioaren laguntza dugu.



Bukatzeko, Foroan parte hartzen dutenen lana eskertzeko eta onartzeko 2007ko Aste Berdean eskaini diren opari batzuk banatu ditu Inmak. Batetik, etxeko txorrotetan eta dutxan ura aurrezteko gailuak; horiei esker %65 aurrez daiteke ur-kontsumoa. Eta bestetik, Legazpitik ibiltzeko bizikleta hartzen dugunean praktan jartzeko zinta islatzailea.



- Ondoren, Legazpin mugikortasuna eta irisgarritasuna sustatzeko Udalak garatu dituen (eta garatuko dituen) ekintzen azalpenarekin jarraitu dugu.



Juanrak hartu du hitza eta gaia azaldu aurretik txosten bat banatu du eta plano bat erabili du gaia azaltzeko. Segidan, burutu diren ekintzak, 2007. urtean egiteko aurreikusitakoak eta burutu gabe geratu diren neurriak adierazi ditu. Jarraian, azaldutakoaren berri emango dugu.

“Puntu kritikoak” Legazpin oinezkoak eta bizikletariak mugitzeko 2006-04-06an egindako Foroan antzemandakoak

Jarraipen txostena: 2007ko ekaina

Kolore-kodeak:

Puntu kritikoak, oinezkoen eta/edo mugikortasun-arazoak dituztenen ikuspegitik.

Puntu kritikoak, ibilgailuaren ikuspegitik.

Puntu kritikoak, bizikleta erabiltzen dutenen ikuspegitik.



AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/06/14	Ordua eta iraupena: 18:30an, ordu eta erdi	Lekua: Udalbatza aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	---	---

● **EGIN DENA:**

Zenbakia	Puntu kritikoaren xehetasuna	Oharra, xehetasuna, iruzkina	Jarraipena, 2007ko apirilean
2	Arantzazu auzoa, harategi parean.		Mendiolari eman zaio zuloak konpontzeko lana.
3	Santikutz kalea (Arantzazu auzotik behera).	Zuhaitzek espaloia estutzen dute; Ikastolara iristean espaloia beste aldera doa, aparkalekuak daudelako.	Arantzazu 1eko petrila kendu egingo da.
5	Industrialdera joateko oinezkoen pasabideak.	Errepide horretan handia da zirkulazioa. Ibilgailuak ez dira pasabideetan geratzen. Dena den, puntu horiek ere kritikoak dira ibilgailuentzako (ez dago ikuspen onik).	Pasabide gatazkatsuenaren ikuspena (txaleten parekoa) hobetu egin da. Plan Orokorrean txaleten ondoan espaloia egitea aurreikusi da.
6	San Ignazio auzoa. Itxaropenerako bidean San Martin auzoarekin dagoen bidegurutzeara.	Bidegurutze arriskutsua, arazoak daude Itxaropen auzotik datozen ibilgailuak ikusteko.	Norabide bakarra jarri da eta ikusteko dago emaitza.
11*	Gasolindegia (Mirandaolarako bidean, kiroldegia igaro eta gero).	Ibilgailuek ez dute oinezkoen pasabidea errespetatzen.	Semaforoa jarri da.
18	Aparkalekuaren irteera.	Puntu kritikoa, aparkalekutik irteten denaren eta irteera-bidetik zirkulatzen doanaren artean.	Ispilua jarri da.
19	Latxartegiko "horma" bukatzen denean.	Ur-putzua egiten da euria denean eta eragozpenak sortzen dizkie oinezkoiei.	Konponduta.
22	Ur-putzua pentsio parean.	Puntu honetan ur-putzua egiten da eta eragozpenak sortzen dizkie bizilagunei.	Konponduta.
24	Udaletxearen eta Postetxearen artean.	Iristeko eta igartzeko arazoak (ez dago irteera zuzenik eta espaloiak jaitsi gabe daude).	Konponduta.
25	Aizkorri kalea.	Iristeko eta igartzeko arazoak (espaloiak jaitsi gabe daude).	Konponduta.
31	Industrialdeko espaloiak (Urola kalea); ibilgailuak daude aparkatuta.		Aparkatzeko debekua jarri da.
38*	Futbol zelaiaren parean (Bikuña kalea) – parkea-.		Pibotak jarri dira.

● **AURREKONTUA, 2007an EGINGO DIREN LANETARAKO:**

Zenbakia	Puntu kritikoaren xehetasuna	Oharra, xehetasuna, iruzkina	Jarraipena, 2007ko apirilean
1	Patrizio Etxeberria kalea	Espaloi estuak, 3, 5, 7 eta 9 atari parean.	2007an egingo da.
21	San Ignazio auzoko eskailerak	Eskailerak oso hondatuta daude.	2007an konponduko dira eskailerak.
27	Laubideko errotonda	Ez dago pertsonen igarotze segurua erraztuko duen espaloirik edo altxatutako pasabiderik.	2007an oinezkoen pasabide bat goratu egingo da.
33*	Urtatza auzoa	Hainbat lekutan ez dago espaloirik.	2007an Urtatza auzoa 3-8 bitarteko espaloia atonduko da.

AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/06/14	Ordua eta iraupena: 18:30an, ordu eta erdi	Lekua: Udalbatza aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	---	---

● **EGITEKO:**


Zenbakia	Puntu kritikoaren xehetasuna	Oharra, xehetasuna, iruzkina	Jarraipena, 2007ko apirilean
4	Musika Eskolara doan oinezkoen pasabidea.	Puntu kritikoa da saihebidia egin denetik.	Foroaren izenean baimena eskatuko dugu semaforo bat jartzeko.
7	Latxartegiko eskailerak.	Eskailerak oso aldapatsuak dira (adineko pertsonen arazoak izaten dituzte...).	2007an bertako argia hobetu egingo da.
8	San Martin auzora doan bide zaharra.	Bidea oso aldapatsua da (adineko pertsonen arazoak izaten dituzte....).	Ingurune hori hobetzeko proiektua idatzi da (proiektuan aldapa leuntzea aurreikusita da). Fase desberdinetan gauzatu da.
9	Itxaropen auzora doazen eskailerak, botika ondokoak.	Gainera, Aizkorri kalea ere puntu kritikoa da, 16 zenbakidun ataritik udaletxeraino.	Apatxo liburu-denda ondoan igogailua jartzeko aukera aztertzen ari da. Norabide bakarra jartzeko aukera aztertuko da eta, horrela, espaloia zabaldu egin daiteke.
10*	Txorroneko bidegurutzea	Oinezkoen pasabidea dagoen arren, bidegurutzea berezia da eta oinezkoek eta ibilgailuek zalantzak izaten dituzte lehenetsua nork duen erabakitzerakoan.	Araza konponduta geratuko da kale hori norabide bakarrekoa izatera pasatzen bada.
12	Legazpi-Urretxu bidegorria.	Bizikletarien eta oinezkoen arteko gatazkak.	
13*	Legazpiko hirigunetik Mirandaolara doan bidea.	Jendea ibilgailuak zirkulatzen duten bidetik doa eta, bertan, ez dago ez bazterbiderik eta ez espaloirik.	Eraikin berriak egitea dago aurreikusita eta Bikuña Txiki urbanizatzeko asmoa dago.
14	Laubide kalea 26 (Laubide tabernaren atzealdea).	Irisgarritasun-arazoak.	Aldaparena konpontzea zaila da; norabide bakarra jartzeko aukera aztertuko da eta, horrela, espaloiak egokitu egin daitezke.
15	Laubide dantzaleku zaharraren ondoan dagoen espaloia.	Ibilgailuak espaloian gainean egoten dira aparkatuta (aparkalekuak kendu ziren).	Berrito aztertuko da gaia.
16	Laubide.	Ibilgailuak espaloian aparkatzen dira eta pertsonen pasabidea eragozten da.	
17*	Brinkolara doan bidea.	Araza ibilgailuen (bi norabidetan doazenak), bizikleten eta oinezkoen artean.	
20	San Ignazio auzoko espaloiak(15-6-7 atariak).	Espaloi estuak dira eta errepide-arrasean daude.	Zaila da konponbide teknikoa ematea.
23	Latxartegi parkea	Aun no siendo estrictamente un punto crítico de movilidad, se recogen como aspectos a mejorar: el surtidor (riesgo de caída para niños/as), la poca funcionalidad del parque y los bancos (incómodos sobre todo para las personas mayores).	Se va a analizar la posibilidad de ir cambiando los bancos en algunas zonas.

AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

<p>Eguna: 2007/06/14</p>	<p>Ordua eta iraupena: 18:30an, ordu eta erdi</p>	<p>Lekua: Udalbatza aretoa. Legazpiko udaletxea</p>
------------------------------	---	---

Zenbakia	Puntu kritikoaren xehetasuna	Oharra, xehetasuna, iruzkina	Jarraipena, 2007ko apirilean
26*	Kiroldegiko sarrera.	Irisgarritasun-arazoak (arrapala dago baina estua da eta ez dago barandarik).	2007an proiektua bukatu da. Obra egitea falta da.
28*	Tren-geltokia	Geltokira doan kalearen azkeneko zatian ez dago espaloirik. Gainera, dagoen espaloian, sarritan, ibilgailuak daude aparkatuta.	
29	Industrialdean zailtasunak daude ibilgailuak aparkatzeko.	Patrizio ondoko industria-pabilioian aparkalekua egokitzeko proposamena.	Ez egitea erabaki da. UZ eta GSB enpresek beraien aparkalekuak prestatzen ari dira.
30	Patrizio Etxeberria kalea	Bide-diziplina betearazi beharra dago; herritarra hezi eta kontzientziatu beharra dago.	
32	Patrizioko pentsioa: espaloia oso egoera txarrean.	Labaintzeko, erortzeko,... arriskua areagotu egiten da neguan.	
34*	Urtatza baserrira doan bidea.	Aurreikusitako urbanizazio-lanekin konpondu egingo da bertan dagoen puntu kritikoa.	Konpontzeko bidean: etxebizitzak lehen aldiz erabiltzeko lizentzia eskuratzeko ezinbestekoa da urbanizazioa bukatuta egotea. .
35	Plaza Bikuña.	Acera estrecha, que obliga a caminar casi por la calzada.	
36	Aizkorri kalea 16.	Problema de accesibilidad; hay un tramo en el que es necesario caminar por la calzada, o en su defecto cruzar la carretera para continuar el recorrido.	Difícil solución.
37	37 Taxi-geltokian (Nagusia Nafarroa kalearekin) eta hotelerako bidean.	Espaloia estutu egiten da eta, horrezaz gain, hotelera ibilgailuek arazoak dituzte bira egiteko eta espaloira igotzen dira horretarako.	37
39	Urtatza auzotik behera datorren kalea ez dago bizikletentzako egokituta.	Badaude kontrako norabidean ibiltzen diren haurrak eta hori arriskutsua da.	
40	40 40 40	40	40
41	Hausnarketa: zergatik ez dira sartzen errepideetan eta hirigintza-jarduketa berrietan bidegorriak?	Adibidez, Juanastegiko bidean.	
42*	Hausnarketa: zergatik ez dira sartzen errepideetan eta hirigintza-jarduketa berrietan bidegorriak?	Adibidez, kiroldegiko errotonda berrian ez da irizpide hori kontutan hartu.	
43	Bidegorrian bizikletarien eta oinezkoen arteko gatazkak.	Oinezkoek bidegorri guztia betetzen dute eta bizikletariekin konpartitu beharra dago.	

*OHARRA: izartxoak duten puntuak mapatik kanpo geratzen dira.



ACTA DEL FORO DE AGENDA 21

Fecha: 14/06/2007	Hora y duración: 18:30 horas, una hora y media	Lugar: Salón de Plenos. Ayuntamiento de Legazpi
----------------------	---	--

Bestalde, gaia azaldu bitartean hainbat **kontu eta iruzkin** egin dira. Hemen bildu ditugu horiek:

- Arazoak daude **udaletxeko igogailuarekin**. Irisgarritasun-arazoak dituzten pertsonak erabiltzen duten motoarekin zaila da igogailua erabiltzea (leku gutxi dagoelako bira egiteko).
- **Postetxeko espaloia jaitsi egin den arren, espaloia oso estua** da. Juanrak kalea bera oso estua dela dio eta espaloia zabaltzeko aukera bakarria trafikorako norabide bakarria jartzea dela esan du. Dena dela konponbide horrek zonaldeko trafikoa antolatzea eskatzen du.
- Horrezaz gain, Inmak bere egunean definitu genuen bidegorriak ere azterketa tekniko egitea eskatzen duela esan du; azterketa horren ondorioz, Legazpirako bidegorria eta kale atseginak lortuko genituzke. Agenda 21eko bulegoan lan hori egiten ari da, plana definitu ondoren finantzabide desberdinak jasotzeko aukera izan dezagun.

- **Bukatzeke, rol joko bat egingo dugu. Mugikortasun alorrean azturak eta jokabideak aldatzeko Legazpin egin daitezkeen hezkuntza arloko ekintzak identifikatzeko balioko digu rol jokoak.**

Rol joko hori urrats desberdinetan burutuko dugu. Hauek dira urratsak:

1. urratsa. Hasteko taldeko pertsona bakoitzari rol bat ezartzen diogu. Izan daiteke: bizikletaria, auto-gidaria edo oinezkoa.

2. urratsa. Segidan, taldean, **Legazpin leku batetik bestera joateko aurkitzen ditugun arazo nagusiak** identifikatu ditugu. Hauek dira:

<ul style="list-style-type: none">• Autoa gaizki egoten ohi da aparkatuta, espaloietan, oinezkoen pasabideetan eta bigarren ilaran.
<ul style="list-style-type: none">• Legazpiko kaleetatik bizikletan ibiltzea arriskutsua da.
<ul style="list-style-type: none">• Oinezkoek ez dute haien pasabideak errespetatzen.
<ul style="list-style-type: none">• Autoek abiadura handian ibiltzen dira Legazpiko erdigunetik.
<ul style="list-style-type: none">• Hainbat tokitan gatazkak daude oinezkoen eta bizikletarien artean.
<ul style="list-style-type: none">• Bizikletak espaloietatik eta kontrako norabidean ibiltzen dira.
<ul style="list-style-type: none">• Legazpin bertan ibiltzeko eta leku batetik bestera joateko beharrik gabe hartzen da autoa eta gehiegi erabiltzen da.

3. urratsa. Identifikatu ditugun arazoetako bat aukeratu dugu: Legazpin bertan ibiltzeko autoa gehiegi erabiltzen dugula. Orain, auto-gidari direnak Legazpin **autoa horrenbeste erabiltzeko arrazoi nagusiak** adierazten dizkigute. Hauek dira arrazoi horiek:



<ul style="list-style-type: none">• Autoan ibiltzea eroso da. Herri txiki batean bizitzearen abantailetakoa bat da. Autoa gure bizikaltatearen parte da.
<ul style="list-style-type: none">• Egunean denbora gutxi dugu eta autoari esker dugun denbora hori aurreztu egiten dugu.
<ul style="list-style-type: none">• Gizarte horrela dago antolatuta, eta autoa prestigioaren ezaugarria da; gainera, egungo gizartearen oinarritzko ondareetako bat da.
<ul style="list-style-type: none">• Autoa erabiltzen dugu baina bidaiari probetxua ateratzen diogu. Adibidez, Zumarragan lan egiten duten herritarrak Legazpira itzultzen direnean erdigunean hainbat enkargu egiteko aukeraz baliatzen dira.
<ul style="list-style-type: none">• Zonalde batzuetako (Urtatza) bizilagunek autoa behar izaten dute hainbat enkargu egiteko. Adibidez, erdigunean erosketak egiteko.

ACTA DEL FORO DE AGENDA 21

Fecha: 14/06/2007	Hora y duración: 18:30 horas, una hora y media	Lugar: Salón de Plenos. Ayuntamiento de Legazpi
----------------------	---	--

4. urratsa. Arrazoi nagusiak ezagutu ondoren, taldeko gainerako pertsonak (bizikletariak eta oinezkoak) emandako **arrazoi horiei aurre egiteko egin daitezkeen ekintza hezigarriak** aztertu dituzte. Hauxe da taldeak lortu duena:

Taldeak proposatu dituen hezkuntza-ekintzak:

- **Bizi-kalitatea** kontzeptua erabiltzea: bizi-kalitatea Legazpin **aire garbia** arnastu ahal izatea ere bada. Horregatik, ekintza hau proposatzen dugu: auto baten (edo bat baino gehiagoen) ihes-hoditik irteten den kea antzematea eta sentitzea ahalbidetuko duen ekintza.
- Sentsazio hori autoez betetako kale batetik dabilen oinezkoak sentitzen duenarekin lotu.
- Kaletik oinez edo bizikletaz joatea **osasuntsua eta osasungarria** dela azpimarratu. Horrez gain, ohitura horrek elkarren arteko harremana eta elkarrizketa bultzatzen du. Hobeto sentiarazten gaitu!
- Kiroldegira joateko autoa behar izatea **barregarri utzi**; gimnasia-saio batean eta Legazpitik oinez ibiltzean galtzen diren kalorietan lotu.
- Legazpiren **mapa "desberdina"** egin, joan-etorri edo ibilbide desberdinak horiek oinez egiteko behar den denborarekin lotuz.
- Autoan datozen (Urtatzatik adibidez) 40 pertsonak betetzen duten **toki publikoa irudikatu**, eta oinez etorri gero beteko luketen tokiarekin alderatu.
- Joan-etorri desberdinak autoz egiteak suposatzen duen **kostua** aztertzea eta azterketa horren emaitzen berri ematea. Batz besteko kostua:
 - CO₂ isurketetan.
 - Euroak (gasolina, aseguruak, autoa mantentzea,...)
 - Umore txarra edo lasaitasun eza.
- Eta hori guztia adibide errazekin adierazi daiteke; esate baterako, zenbat ordaindu behar duzu kafe bat oinez baldin bazoaz edo autoz?
- **Erosketetarako orga** modan jartzea berriro, autoa ez hartzeko aukera ona izan daitezke.
- Gainera, Legazpiko dendekin batera kanpaina bat egin daiteke, kostu txikiaren truke, etxez-etxe banaketa egin dezaten (banaketa hori autoan egin arren, bidaiak batean biltzen dira banaketa asko!).
- Kanpaina bat egitea, herritarrekin eta Legazpiko dendekin batera, ibilgailuak **modu egokian erabiltzeko eta aparkaetzeko** ohitura onak bultzatzeko. Horrela, adibidez, aste batean zehar (mugikortasunaren astean) kanpaina horretan parte hartuko dutenek isun sinbolikoak edo erabilera egokiak gogoraziko dituzten oharrak banatuko dizkiete Legazpiko kaleetan arauak hautsiko dituzten auto-gidariei.



Horrez gain, kontutan hartu beharreko bestelako **iruzkinak eta oharrak** jaso dira. Honako hauek:

- Planifikatuko diren ekintzak bideo-kamerekin grabatu daitezke eta, ondoren, herriko komunikabideetan **zabal** daitezke.
- Zenbait ekintza hartzailerik zehatzei zuzendutakoak izan daitezke: 20 urte inguruko **neska/mutil gazteak**, langileak eta autoa dutenak.
- Honako hau izan daiteke erabil daitezkeen beste kontzeptu bat: autoa gehiegi erabiltzeari dagokionez, Legazpi **"lege gabeko herria"** izatea nahi ote dugun.

Azkenik, proposatutako ekintza hezigarri horiek joan den apirilaren 19an egin genuen tailerrean zehaztu genituen proposamenak osatzen dituzte. Horiek guztiak Legazpiko Udalak lan ditzakeen ideiak eta proposamenak dira, lehentasunak ezarri eta martxan jar ditzan. Hurrengo **2007ko Mugikortasunaren Astea** aukera polita izan daiteke hemen proposatutako zenbait asmo martxan jartzeko! Besteak urtean zehar landu daitezke, ohiturak aldatzeak etengabeko ahalegina eskatzen duelako...



ACTA DEL FORO DE AGENDA 21

Fecha: 14/06/2007	Hora y duración: 18:30 horas, una hora y media	Lugar: Salón de Plenos. Ayuntamiento de Legazpi
----------------------	---	--

Arratsaldeko 8ak eta bost minutu dira! Agur esateko ordua iritsi da!

Eta gustura geratu gara. Batetik ideia berriak eta balio handikoak sortu ditugulako; mugikortasun iraunkorrari buruz Legazpin berriak diren ekintza hezigarriak proposatzeko eta burutzeko oinarritzko ideiak. Eta bestetik, saioa motza egin zaigu, eta proposamen gehiago geratu zaizkigu zintzilik!; batik bat, bizikletaren erabilera sustatzeari buruzkoak eta gure herrian oinezkoak duen garrantziari buruzkoak.

Baina hori hurrengorako utziko dugu,.... momentuz agur esateko ordua iritsi da. Eta agur esaten dugu hurrengo **urriaren 4ra arte**, orduan egingo baitugu Legazpiko Agenda 21eko parte-hartze foroaren hurrengo bilera. Bitartean, udaz goza ezazue! Eta, ahal bada, egunetik egunera ohitura egokiak lagun dituzuela,....

Eskerrik asko guztiagatik eta guztioi!!!

Legazpin iraunkorra izan daitekeen garapena lortzeko proposatutako aldaketa txikiak, handiak izatea lortzen duzuelako !!!